



Von Bat jaunaren desafioa

Sustoak susto, gu beti munstro!



A. B. Saddlewick

desclée





Lehenengo kapitulua

Maudek ez zekien zenbat iraun ahal izango zuen bere eserlekuan jarrita.

Eguneko azken eskola ordua zuten Udaberri-lorearen ikastetxean, eta ikasleak etxean egindako eskulanak aurkezten ari ziren. Baina Maudi zein baino zein aspergarriagoak iruditzen zitzaizkion ikaskideen aurkezpenak. Halakoetan, bere buruari galdetzen zion besteak ez ote ziren planeta urrun batekoak izango. Ala bera ote zen estralurtarra?

Mitxoleta Txoraizetak bere hartz txikiarentzat trikotatutako jakatxo arrosa erakutsi zien, eta Sara Sanodotorek, berriz, orrialde amaigabeen artean prentsatutako lore andana: lilipak, bitxiloreak, hiazintoak, bioletak...

Fha!, egin zuen Maud Montaguek bere artean, *Ez dago landare interesgarri bakar bat ere bilduma horretan! Non daude, bada, huntz pozoitsuak eta landare karniboroak?*

Magalean zeukan izozki kutxaren tapatxoa arretaz haztatu zuen, aireari pasatzen uzteko zulo txoak artean estali gabe zeudela ziurtatzeko, eta bere txandaren zain geratu zen. Zalantzarik gabe, bere eskulana hartz txiki aspergarriarena edo lore bigunena baino askoz ere zirrargarriagoa zen. Ikaskide guztiak txundituta utziko zituen!

Loraberri andereñoak ingurura begiratu zuen.

—Nor da hurrengoa?

Maud idazmahaitik altxatzeko prestatu zen.

—Milly.

Arraioa, pentsatu zuen Maudek. Milly Montague ahizpa bikia zuen, eta lepoa egin zezakeen ikasgelara ekarritakoa lore iharrak eta hartz txikientzako arropa baino askoz ere melengagoa izango zela.

Milly pauso arinez atera zen arbelera, eta Maudek benetako jakin-minez begiratu zion ahizparen zorro arrosari, izan ere, goizean, eskolako autobusean ez zion erakutsi nahi izan barnean zeramana.

Arrosen petaloez egindako adarbakar leuna ote zen? Ala ortzadarraren kolore guztiak zituen laguntasunaren eskumuturrekoa?

Are okerragoa izan zen! Millyk kartoizko kutxa zuri bat atera, tapa kendu, eta Loraberri andereñoari eskaini zion. Barnean, pastel arrosa handi bat zegoen, gainazalean “Irakaslerik onenarentzat” idatzia zuena azukre-hautz morearekin.

Ikaskideek txalo egin zuten pozarren.

Maudek bekozkoa jarri zuen: helburua ez al zen ba gauza interesgarriak egitea? Orduan, non zeuden zizare-haztegiak, munstroentzako jantziak eta lizundutako marmeladaz beteriko poteak?

—Gora Loraberri andereñoa! —oihukatu zuen Millyk—. Gora!

—Gora! —erantzun zioten Maudek ez beste ikaskide guztiek.

—Eskerrik asko —esan zuen Loraberri andereñoak—. Ekarpen bikaina zurea, Milly. Urrezko izarra emango nizuke, baina dagoeneko denak irabazi dituzu.

Maudek begiak zuri jarri zituen, antzezpen horrek benetan gogaitzen baitzuen, eta bere artean

pentsatu zuen pastela hain gauza harrigarria iruditu bazitzaien, sekulako ezustekoa hartuko zutela bere aurkezpena ikustean!

—Nor da hurrengoa? —Loraberri andereñoak ingurura begiratu, eta hasperen egin zuen—. Tira, ustedut denak atera zaretela, hortaz, Mauden txanda da.

Ikasleak kexaka hasi ziren.

—Maud Munstro Beldurgarria ez! —oihukatu zuen Mitxoletak lehen ilaran zuen ikasmahaitik.

—Tira, gaurkoan bere xomorro hilen bilduma ekartzen ez badigu, gaitz erdi! —esan zuen Alizia Jonesek.

—Mesedez, andereño, ez iezaiozu utzi berriro ere harrei buruz hitz egiten! —erregutu zuen Suzie Singhek—. Bazkaldu berriak gara!

Sarak esku dardarti bat jaso zuen.

—Komunera joan al naiteke, andereño?

—Zaude pixka batean —erantzun zion Loraberri andereñoak—. Buka dezagun honekin lehenbailen.

Maud arbelera atera zen, plastikozko kutxa eskuetan.

—Lagunok, gaurkoan nire maskota ekarri dizuet —hasi zen—. Quentin du izena.

Suziek aurpegia estali zuen eskuekin Maudek izozki kutxaren tapatxoa kendu zuenean.

Baina, barnean, arroka bat besterik ez zegoen, oihal beltz txiki batean bildua.

Mitxoletak oin-puntetan jarri behar izan zuen kutxaren edukia hobeto ikusteko.

—Arroka bat al da zure maskota? Arroka kapaduna? Quentin izenekoa?

—Esan nizun ba, burutik egina zegoela –xuxurlatu zion Sarak.

—Quentin ez da arroka bat –esan zuen Maudek–. Ihes egingo zuen, nik uste.

Ikaskideak aztoratzen hasi ziren, Maudek esandakoarekin deseroso.

—Zaudete lasai –Maud ikaskideak baretzen saiatu zen–. Arratoi basatiek baizik ez dituzte gaixotasunak kutsatzen.

Ez bat eta ez bi, gelakide guztiak aulkien gainean zeuden oihuka. Guztiak Milly izan ezik. Bere idazmahaian zegoen lasai asko eserita, boligrafoak ilara txukunetan antolatzen. Ezpainetan irribarre gaiztoa zuen, Maud arazoetan sartzen zuenean jarri ohi zuen irribarre bera.

Baina hura ez zen ahizpaz arduratzeko une aproposa: Maudek ikaskideak lasaitu, eta Quentin aurkitu behar zuen berehala.

—Mesedez, utziko al diozue oihu egiteari? —erregutzen zien—. Quentin oso urduri jartzen da jende berria ezagutzean.

Baina, alferrik. Mauden erreguak iskanbila horren erdian galtzen ziren.

Azkenean, Loraberri andereñoa bere idazmahaitik zutitu, eta zalaparta hura eten zuen.

—Ixo!! —oihukatu zuen, eta ikasle guztiak isilarazi zituen—. Argi dago Montague andereñoaren txantxa inozoetako bat besterik ez dela!

Loraberri andereñoa hizketan ari zen bitartean, Maud ohartu zen irakaslearen mahai gainean zeuden paperak mugitzen ari zirela. Arreta handiagoz begiratzean, buztantzar beltz eta luze bat ikusi zuen, apunte mordoaren azpian sigi-sagaka.

—Zera... Loraberri andereñoa... —saiatu zen esaten.

Paperak berriro mugitu ziren, eta, orduantxe, Quentin atera zen azpitik, arin, bere erpeekin tirriki-tarraka hotsa ateraz zurezko altzariaren gainean. Animaliak inoiz baino itxura zarpailagoa zuen:

ilaje grisa ohi baino harrotuagoa zuen, eta sortaka goratua, han-hemen lardaskatzen zebilenean baino nahasiagoa. Azkenean, gelditu, atzeko hanken gainean zutitu, eta arretaz aztertu zuen gela bere bi begi arrosa distiratsuekin. Ikasleek zurtuta begiratzten zioten, begiak zabal-zabalik zituztela.

—Nahikoa zalaparta sortu duzu gaurkoz –errietan egin zion Loraberri andereñoak Maudi, artean Quentin ikusi gabe.

—Baina, andereño...

—Et, et, et! –eten zion andereñoak—. Zoaz kanpora eta egizu gogoeta eragindako nahaste-borrasteari buruz! –Eta, ikasleengana jiratur, agindu zien—: Eta zuek, jaitsiko al zarete behingoz aulkietatik?

Maud, gelatik atera baino lehen, Quentin mugimendu azkar batez hartzen saiatu zen, baina arratoiak mahai ertzerantz ihes egin, eta salto egin zuen. Loraberri andereñoaren gonatik zintzilik geratu zen, erpeekin tinko helduz. Ikasleek ikarazko oihu zorrotz bat egin zuten.


—Zer...? –murmurikatu zuen irakasleak, eta berehala jiratu zen begiratzera. Quentin, orduan, txilioka hasi zen ikararen ikaraz, eta ziztuan abiatu zen andereñoaren bizkarrean gora, jertsearen

azpitik ezkutatuz. Une hartantxe, Loraberri andereñoa garrasika hasi zen, gorputza eta besoak dantza ero batean bezala bihurritzen eta astintzen zituela.

—Ez mugitu, andereño! —esan zion Maudek.

Andereñoa zur eta lur geratu zen, eta handik laster, Quentinen sudurtxoak agertu zen jertsearen lepotik. Loraberri andereñoak mantso-mantso jiratu zuen burua, eta arratoia ikustean, begiak zabal-zabalik zituela begiratu zion. Quentinek irribarre batekin erantzun zion, hortz txiki horixkak agerian utziz.

Loraberri andereñoa zerbait esaten saiatu zen, baina ezin izan zuen hitz bakar bat ere ahoskatu. Belaunak dardarka hasi zitzaizkion. Maud berehala hurbildu zitzaion Quentin sorbaldatik kentzera, eta laguna eskuetan hartu bezain azkar, Loraberri andereñoak konortea galdu, eta ziplo erori zen lurrera.





Bigarren kapitulua

Handik ordu laurden batera, Maud Mihilu Handrearen bulegoan zegoen.

Zientoka aldiz egona zen bertan, eta bazekien zer gertatuko zen: Mihilu andrea, blusa dotoreekin jantzi ohi zen emakumea, txukun-txukun ordenatutako idazmahaiaren atzean eseriko zen eta sekulako erretolika botako zion. Gero, halakorik berriro ez egiteko agindu, eta alde egiten utziko zion. Egia esateko, hainbesterako ere ez zen.

—Maud Montague —hasi zen Mihilu andrea—, hau onartezina da! Oraingoan urrunegi joan zara! Gaurkoa babarrunak berdez tindatu zenituenekoa baino are larriagoa izan da! Otsoaren maskararena baino makurragoa!